

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako Esku-hartze Sozialaren sektorearen hitzarmenetik eratorritako akordioa

Ebazpena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da Arabako Esku-hartze Sozialako sektorearen hitzarmen kolektiboko akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01100025012015.

AURREKARIAK

2016ko martxoaren 2an aurkeztu da, ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko paritaria batzordearen akta, enpresaburuen AISA eta langileen ordezkariek ELA, ESK, UGT, CCOO eta LAB 2016ko urtarrilaren 28ko sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2011ko apirilaren 4ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren paritariaren batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 21a

Arabako lurralde ordezkarria
ÁLVARO IRADIER ROSA

**2016ko urtarrilaren 28ko Arabako Esku-hartze Sozialeko I.
Hitzarmen Kolektiboaren batzorde paritarioaren akta**

Ordezkaritza sindikala: ELA, ESK, UGT, CCOO eta LAB

Enpresen ordezkariak: AISA

Arabako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmen Kolektiboaren batzorde paritarioko zentral sindikalen eta enpresaburuen elkarleen ordezkariak Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluaren Arabako lurralde-egoitzan bildu dira, Gasteizen, 2016ko urtarrilaren 28an, 10: 00etan, eta honako erabaki hauek hartu dituzte:

Lehenena: Arabako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmen Kolektiboaren azken xedapenetako laugarrenean zehaztutakoa betez, batzorde paritarioak aipatu hitzarmeneko jardueren katalogoa idatzi du eta horren onarpena sinatuko du ekitaldi honetan.

Bigarrenena: Arabako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmen Kolektiboko jardueren katalogoaren jatorrizko dokumentu sinatua eta nahitaezko kopiak igortzea Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzara.

Hirugarrena: jardueren katalogoa erregistratzeko eta ALHAOn argitaratzeko eskatzea Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Arabako lurralde-ordezkaritari, indarrean den legeriaren ondorioetarako.

Laugarrena: Lan Harremanen Kontseiluko presidentea baimentzea aipatu erakundeak Arabako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmen Kolektiboko jardueren katalogoa erregistratzeko eta argitaratzeko behar beste izapide egiteko. Hitzarmen Kolektiboaren Batzorde Paritarioaren egoitza LHKren Arabako lurralde-egoitza izango da; hots: Landaverde kalea 35, beheko solairua; Gasteiz.

Bosgarrena: akta honi Arabako Esku-hartze Sozialeko I. Hitzarmen Kolektiboko jardueren katalogoa atxikitzea.

Eta ados daudela adierazteko, sindikatuen eta enpresen ordezkariak akta hau sinatu dute, jardueren katalogoa atxikita dagoela, hasieran adierazitako egunean eta tokian. PRECOren adiskidetzaille/bitartekaria ere izan da bileran, negoziazioan laguntzeko lanak egin baititu.

Saioa amaitutzat eman da: lortu da akordioa eta Lan Harremanen Kontseiluari eskatuko zaio akta honen lehen erabakia lan-arloko agintaritzari igortzeko, erregistra eta argitara dezan.

Arabako Gizarte-arloko Esku Hartzearen inguruko I. Hitzarmenaren Jarduera Katalogoa

Jarduera Katalogo hau Arabako Gizarte-arloko Esku Hartzearen inguruko I. Hitzarmenaren 1. artikulua babesean garatu eta onartu da (esparru funtzionalari buruzko 4, 3 eta 5 paragrafoak gaineratuko dira, hurrenkera horretan)

Esparru funtzionala hobeto ezagutu eta zehazteko, hitzarmen honen xedapenen aldean — azken laugarren xedapenean —, jardueren katalogoa gaineratu da, hitzarmen honen esparru funtzionala hobeto azaldu eta zehazteko. Hala ere, katalogoa ez da zerrenda edo deskribapen itxia, hitzarmenaren batzorde paritarioak zerrenda handitzeko aukera izango baitu, egiten dituen interpretazioen arabera.

Honako esparru hauek izango dira hitzarmen honen eraginpekoak: gizarteratze-esparrua eta gizarte-babesaren esparrua, eta bateratutako beste hainbat esparru; besteak beste, gizarte- eta lan-arloko esparrua edo gizarte- eta osasun-arloko esparrua, eta gizarte- eta kultura-arloko esparrua eta gizarte-hezkuntzakoa, baita osasun mentalaren esparrua ere (gaixotasun mental gisa hartuta).

Talde hartzaileak askotarikoak dira: babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak eta taldeak edo babesgabetasun-egoeraren arriskuan dauden adingabeak, gazteak, emakumeak, adinekoak eta helduak, edota gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden herritarrik. Tipologia

horietan, eta soilik adibide gisa (ez da zerrenda zehatza), adierazi behar dugu definizio horren baitan daudela hainbat arrazoiengatik baztertuak izan direnak; adibidez, honako hauek: arrazoi ekonomikoak dituztenak, etxerik ez dutenak, mendetasun batengatik nahasmenduak dituztenak, iraganean mendetasun motaren bat izan dutenak, immigranteak, langabeak, presoak edo preso ohiak, eta gaixotasun mentala duten pertsonak. Edozein kasutan, pertsona edo talde horiek bazterkeria- edo babesgabetasun-egoeran daude, eta beharrezkoa da hainbat ekimen sustatzea gizartean parte har dezaten.

Esku-hartze psikosozialaren eta gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen arloa: Zerbitzu, zentro, ekipo eta programa multzoa, pertsonak, taldeak eta komunitateak beren ingurunean modu integralean eta etengabe garatzera bideratuak, baita gizarte-, hezkuntza- eta/edo ekonomia-desabantailaren eta arriskuaren egoeren aurrean haiek prebenitzera, zaintzera, jardutera eta konpentsatzera bideratuak ere, psikologia-, gizarte- eta hezkuntza-arloko ikuspegitik.

Eremu horretan, besteak beste, honako zerbitzu, ekipamendu, programa, proiektu, jardun, jarduera eta antzeko edo pareko beste batzuk biltzen dira:

- Zerbitzuak eta antzeko beste batzuk:
 - * Gizarte-hezkuntzako eta gizarte-laneko zerbitzuak adingabeekin eta familiekin. Gizarte eta Hezkuntza-arloko Esku-Hartze Zerbitzuak.
 - * Etorkinen lehen harrerako zerbitzuak.
 - * Familia-arloko integrazioko zerbitzuak familia-harrera eta/edo adopzioa sustatzeko.
 - * Ama-hurrei laguntzeko zerbitzuak.
 - * Balorazio, arreta eta orientazio psikologiko eta/edo psikopedagogikorako zerbitzuak, bazterkerian edo bazterkeria-arriskuan nahiz babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen zuzenduta.
 - * Haurren eta gazteen informaziorako, orientaziorako eta sustapenerako zerbitzu orokorrak eta/edo espezializatuak (arriskuan dauden adingabeen, nerabeen eta gazteen diagnostikoa, ebaluazioa eta jarraipena).
 - * Emakumeen laguntza, informazio, aholkularitza, esku-hartze eta tratamendurako zerbitzu espezializatuak (genero-indarkeriaren biktimak, prostitutak, arazo sozial espezifikoak dituzten emakumeak eta abar).
 - * Gizarte-arretako zerbitzuak Epaitegietan.
 - * Etxeko indarkeriaren biktimak (haurrak, emakumeak, hirugarren adinekoak eta abar) artatzeko zerbitzuak.
 - * Espetxea ez diren zigor-arloko beste neurri batzuk betearazteko zerbitzua.
 - * Tutoretzako eta gizarteratzen laguntzeko zerbitzuak.
 - * Gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak eskolaz kanpoko ordutegian, eskolaren esparruan, arriskuan dauden gazteentzat.
 - Ekipamenduak, zentroak, etxebizitzak eta antzeko egiturak:
 - * Gizarte-bazterkeriaren prozesuan dauden pertsonak bitzta autonomorako prestatzeko etxeak.
 - * Eguneko zentroak arriskuan dauden haur, gazte eta nerabeentzat.
 - * Eguneko zentroak gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden emakumeentzat eta beste kolektibo batzuentzat.
 - * Gizarte-larrialdietarako harrera-zentroak

- * Egoitza-zentroak tratu txarreatatik (genero-indarkeria edo babesgabetasuna) babesik gabe dauden emakumeentzat
- * Adingabe arau-hausleentzako Barneratzeko Zentroak, erregimen itxian, erdi-itxian, erdi-irekian eta irekian.
- * Barneratzeko Zentro terapeutikoak edo komunitate terapeutikoak mendekotasuna duten pertsonentzat.
- * Tratamendu anbulatorioa emateko edo zerbitzuak emateko zentro zehatzak, mendekotasuna duten pertsonentzat.
- * Adingabe arau-hausleei neurriak edo babespeko adingabeei hezkuntza-jardunak aplikatzea helburu duten eguneko zentroak.
- * Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako harrerako, lehen harrerako eta/edo ebaluazio-diagnostikorako zentroak.
- * Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-zentroak.
- * Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak.
- * Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak emantzipatzen eta autonomia izaten trebatzeko etxeak.
- * Jokabide-arazo larriak edo oso larriak dituzten adingabeentzako zentroak.
- * Gaueko zentroak eta gizarte-pentsioak, bazterkeria- edo babesgabetasun-arriskuan dauden pertsonentzat.
- Programak, proiektuak eta antzeko jarduerak:
 - * Familia-arreta, esku-hartze eta -bitartekotzarako programak.
 - * Adingabeen eta nerabeen gizarte-justiziako eta -babeseko programak (zentro irekiak, zentro itxiak, familia-harrera, adopzio-zerbitzuak, harrerako eta zaintzako –iraunkorra eta/edo aldi baterakoa– zentroak, etxebizitzak eta abar).
 - * Gizarte-hezkuntzaren esku-hartze programak (osabidezko hezkuntza, eskola-absentismoa, ekintzak tutoretza-denboretan, eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza-tailerrak, prebentzioa eta abar). Gizarte-hezkuntzan esku hartzeko beste programa batzuk.
 - * Garapen pertsonal eta sozialerako programak (gizarte-gaitasunak, hazkunde pertsonala eta parte-hartzea eta abar), bazterkerian edo gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden pertsonentzat.
 - * Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 7. artikuluko g), h), i), j) eta k) letretan aurreikusitako erdi-irekiko neurriak aplikatzen dituzten programak.
 - * Kode Zibilaren, Prozedura Zibilaren Legearen eta Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Legearen zati batzuk aldatu zituen Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 26/2015 Lege Organikoaren artikuluetatik edo bere garaian artikuluko horiek ordeztu, handitu edo aldatu zituzten artikuluetatik eratorritako programak, proiektuak eta jarduerak. Era berean, eta, bereziki, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako EAEko harrera-egoitzako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan ezarritako egoitza-zentrotako erabiltzaileekin lotutako eta/edo erabiltzaile horietatik eratorritako eta/edo horiei bideratutako edozein motatako programa, proiektu eta jarduera.
 - * Familia adoptatzaileak eta adopzio-ondoko familiak prestatzeko programak.
 - * Familia-harrerako (sinplea, iraunkorra, adopzio aurrekoa) programak, bai familiak sensibilizatzeko, hedatzeko eta atzematuko direnak, bai familia horiek prestatzeko direnak, baita kasuetan laguntzeko eta kasuei jarraipena egiteko direnak edota harrera profesionalerako programak ere.

Gizarte- eta lan-esparruan esku hartzeko arloa: zerbitzu, zentro, ekipo eta programa multzoa, gizarteratzea sustatzera eta autonomia pertsonala eta ekonomikoa lortzea ahalbidetuko duten enplegu- eta okupazio-espazioak bilatuz bizi-kalitatea hobetzera bideratuta daudenak; horretarako, aberastasun materialaren eta kulturalaren garapen harmonizatua sustatuko da tokiko eremuan laneratzeko, berdintasuna sustatzeko eta toki-garapenerako jarduera espezifikoien bidez, gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden pertsona eta/edo taldeei zuzenduta.

Eremu horretan, besteak beste, honako zerbitzu, ekipamendu, programa, proiektu, jardun, jarduera eta antzeko edo pareko beste batzuk biltzen dira:

- Zerbitzuak eta antzeko beste batzuk:
 - * Gizarteratzeko eta laneratzeko edo birgizarteratzeko edo birlaneratzeko zerbitzuak.
 - * Enplegurako lanbide-orientazioko eta auto-okupaziorako laguntzako zerbitzuak, laneratze-ibilbideak.
 - * Enpresa-arloko informazioko, orientazioko, aholkularitzako, bitartekotzako eta sentsibilizazioko zerbitzuak.
 - * Enplegarritasuna hobetzeko zerbitzu integralak, gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden kolektiboentzat.
 - * Enpresa arrunt batean laneratzen laguntzeko zerbitzua gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden kolektiboentzat.
 - * Lan-orientazioko zerbitzu terapeutikoak (tailerren aurrekoa, laneko bulego teknikoak eta abar).
 - * Beste batzuk.
 - Ekipamenduak, zentroak, etxebizitzak eta antzeko egiturak:
 - * Tailerren aurrekoak arriskuan dauden nerabe eta gazteen garapen pertsonalerako, gizarteratzeko eta gizarte-hezkuntzako defizitak konpentsatzeko.
 - * Eguneko zentroa bazterkeria-egoeran, okupazio-prestaketaren eta lanareko prestaketaren egoeran dauden kolektiboen laneratzea errazteko.
 - * Beste batzuk.
 - Programak, proiektuak eta antzeko jarduerak:
 - * Ekintza esperimentalak metodologiari eta arlo kolektiboari dagokionez, berritzaileak izango direnak gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez.
 - * Orientazio eta informazio profesionalizatzaileko ekintzak.
 - * Lan-motibaziorako ekintzak.
 - * Enplegu-programak tutoretza-laguntzarekin.
 - * Beste batzuk.

Berriaz baztertuko dira irakaskuntza arautuan jasotako prestakuntza-moduluak, baita kudeaketa zuzeneko zerbitzu publikoak ere.

Gizarte- eta osasun-esparruan esku hartzeko arloa: zerbitzu, zentro, ekipo eta programa multzoa, gizabanako, talde edo komunitateei arreta prebentiboa nahiz laguntzako ematera bideratuta dagoena. Gizabanako, talde edo komunitate horien osasun fisikoko eta/edo psikikoko baldintzek, zenbait gizarte-premiarekin ere lotuta, diziplina antzeko esku-hartze bio-psiko-soziala behar dute haien bizi-kalitatea hobetzeko.

Eremu horretan, besteak beste, honako zerbitzu, ekipamendu, programa, proiektu, jardun, jarduera eta antzeko edo pareko beste batzuk biltzen dira:

- Zerbitzuak eta antzeko beste batzuk:
 - * Dolua dagoenean emozio-laguntza emateko zerbitzuak.
 - * Gaixoari eta haren ahaideei (GIBaren eraginpean daudenak eta abar) emozio-laguntza emateko zerbitzuak.
 - * GIBa eta droga-mendetasunak prebenitzeko zerbitzuak.
 - * Errehabilitazioko zerbitzu soziosanitarioak gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden kolektiboentzat.
 - * Gizarte-arloan zailtasun handia duten kolektiboek laguntza emateko arreta-zerbitzua (elikatzeko laguntza, jantokiak, arropategiak eta oinarrizko beste premia batzuk).
 - * Gizarte-larrialdietarako zerbitzuak.
 - * Osasun- eta gizarte-arloko baliabideen arteko koordinazio-zerbitzuak.
 - * Errefuxiatuei Laguntzeko Zerbitzuak.
 - * Sortutako gaixotasun mentala duten pertsonak birgaitzeko eta gizarteratzeko zerbitzuak.
 - * Errehabilitazio psikosozialaren zerbitzuak.
 - * Sortutako gaixotasun mentala duten pertsonen familiek atsedean hartzeko zerbitzuak.
 - * Sortutako gaixotasun mentala duten pertsonak artatzeko erakundeak eta elkarteak.
 - * Beste arrazoi batzuk...
- Ekipamenduak, zentroak, etxebizitzak eta antzeko egiturak:
 - * Egonaldi mugatuko zentroa etxea aldi baterako ordeztzeko eta premiazko egoitza-harre-rak. Bidarientzako zentroak, aldi baterako etxebizitzak edo zentroak gizarteratzearen aldeko lan-plataforma gisa.
 - * Gizarte-bazterkeriaren arriskuan edo gizarte-bazterkeriaren egoeran dauden eta bazter-keria-arriskuko edo bazterkeriako hainbat alderdi dituzten herritarrentzako (toxikomendeta-sunak, gaixotasun mentalak, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak, familiak, GIB eta abar) egoitza-zentroak.
 - * Errefuxiatuentzako zentroak eta etxebizitzak.
 - * Toxikomendetasunak eta beste mendetasun batzuk artatzeko zentroak, espezializatuak edo integralak.
 - * Sortutako gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza eta etxebizitza tutelatuak.
 - * Okupaziorako edo okupazio-terapiarako zentroak eta -tailerrak, sortutako gaixotasun mentala duten pertsonentzat.
 - * Eguneko edo gaueko zentroak, aisialdirako zentroak, birgaitzeko eta gizarteratzeko zen-troak, sortutako gaixotasun mentala duten pertsonentzat.
 - * Beste batzuk.
- Programak, proiektuak eta antzeko jarduerak:
 - * Mendetasunak tratatzeko programa soziosanitario integralak.
 - * Droga-mendetasunetan desintoxikatzen eta desohitzeko eta droga-mendetasunetan gizarteratzeko programak: GLB, DLIZ, etxebizitzak.

- * Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako programak eta zerbitzuak, pertsona horien eta etxebizitzaren merkatu pribatuaren artean bitartekotza-lanak egiten dituztenak pertsona horiek etxebizitza horietan sartzeko; horretarako, ohiturak berriro hartzeko, laguntza psikosoziala emateko, lanurreko laguntza emateko gizarte-hezkuntzazko ekintzen, aisia-jardueren eta abarren bitartez laguntzen zaie.
- * Droga-mendetasunen arloko kalteak murrizteko programak (metadona eta bestelakoak): autobusak, eguneko zentroak...
- * Osasun- eta gizarte-arloko baliabideen arteko koordinazio-ekipoak.
- * Sortutako gaixotasun mentala duten pertsonentzako arreta-, diagnostiko-, prestakuntza-, hezkuntza-, sustapen- eta laneratze-programak.
- * Beste batzuk.